

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Guardiako udal kirol instalazioak erabiltzeko ordenantzari

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 11ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea udal kirol instalazioen erabilera arautzen duen ordenantzari.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean —2020ko uztailaren 10eko (ostirala) ALHAOn (77. zk.) argitaratu zen hari buruzko iragarkia— ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta, beraz, behin betiko onesten da ordenantza, eta indarrean dauden xedapenek agintzen dutena betez, osorik argitaratzen da ordenantza haren testua:

Guardiako udal kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantza

1. artikulua. Azalpena

Espainiako Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek emandako ahalmenez baliatuz, eta Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 15. artikulutik 19.era bitartekoetan xedatutakoaren arabera – Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina –,udal kiroldegia eta udal gimnasioa erabiltzeagatikoz prezio publikoa ezartzen du udal honek.

2. artikulua. Ordaintzera behartuak

Guardiako udal polikiroldegiko eta gimnasioko instalazioak erabiltzen dituztenek ordaindu beharko dute ordenantzak xedatzen duen prezio publikoa.

3. artikulua. Zenbatekoa

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen zenbatekoa ondorengo tarifetan zehaztutakoa izango da.

Kiroldegia

Ez erroldatuak:

1 h. pala-frontenisa-esku pilota- areto futbola- 2 euro/pertsona

Erroldatuak:

1 h. pala-frontenisa-esku pilota- areto futbola- 1 euro/pertsona

Argia: 1h. 2 euro

Gimnasioa

Inskripzioa: 40 euro

Urteko kuota: 60 euro

4. artikulua. Ordaintzeko beharra

Interesdunak udal polikiroldegiko instalazioak erabiltzen dituen unean bertan sortzen da ordenantza honetan araututako prezio publikoa ordaintzeko beharra.

Guardia, 2020ko irailaren 10a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO